



Ibilbideak

# Bizkaia **bizkietaz**



3. Ibilbidea

Areeta > Bolue



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Herri Lan Saila  
Departamento de Obras Públicas

## Fitxa teknikoa

- **Areeta-Bolueko hezegunea-Aiboa**
- **Bizikleta Plan Nagusiko Eskuinaldea ardatza**
- **Ibilbidea:** 14 km
- **Gutxi gorabeherako denbora, geldialdiekin:** bi ordu eta erdi
- **Zailtasuna:** txikia
- **Zirkulazioa:** urria herri barruko zati batzuetan
- **Gomendatutako bizikleta mota:** edozein



## Bizkaia bizikletaz

Azken urteotan, Bizkaian hainbat urrats egin ditugu Bizikleta sustatzeko eta garraibide gisa erabiltzeko bidean. Ibilbide hauek aukera paregabea dira autoa etxean uzteko eta bizikletaz lasai eta presarik gabe gozatzeko. Ibilbide seguruak eta pertsona guztientzat egokiak dira.

Bizikletaz ibiltzea dibertigarria, osasungarria eta ekologikoa da. Noizean behin kirol egiteko baina askoz gehiagorako balio du. Ikastetxera edo lantokira joateko erabil dezakezu, erosketak egiteko, lagunekin gelditzeko edo, besterik gabe, zure hirian edo herrian paseatzeko edo txangoak egiteko. Bizikletak **ABANTAILA** ugari ditu:

- **Osasungarria** da, sasoi onean egoteko ezin egokiagoa, eta estresaren eta agresibitatearen kontrako antidoto bikaina.
- Garraibiderik **merkeena** da.
- Independentzia handia ematen digu eta hirian **azkarra da**. 7,5 km-tik beherako distantzietan autoak baino lasterragoa da.
- Baina, batez ere, beharrezkoa da, planetaren hondamena geldiarazteko **beharrezkoa**. Nazio Batuen txosten baten arabera, 50 urtean planetako temperatura 1,4 eta 5,8 °C bitartean igoko da, atmosferara isuritako gasen ondorioz. Horrek mutur-muturreko klimak ekarriko ditu, uholdeak, tornadoak, gaur egungo aberastasun biologikoaren %25aren galera... Baina, zer gerta daitekeen pentsatzen hasi baino, hobe dugu arazoa konpontzen saiatu. Egia esan, dena ez dago gure esku, baina zure ekarpena funtsezkoa da planeta salbatzeko. Erabili bizikleta eta utzi autoa!!!

Bizikletaz ibiltzea, berez, ez da arriskutsua. Autoek sortzen dute arriskua. Hona hemen, bada, autoetatik babesteko **AHOLKU** batzuk:

- Abiatu baino lehen bidea aztertu eta ibilbiderik arriskutsuenak baztertu.
- Kale edo bide estuetatik bazoaz eta autoek zu aurreratzean 1,5 metroko segurtasun-tartea uzteko lekurik ez badago, bidearen erditik joan. Ez ibili aparkatuta dauden ibilgailuetatik hurbil.
- Bizikleta egoera onean eduki beti. Aldiro aztertu balaztak, gurpil-azalak, direkzioa eta argiak.
- Gaez, argiak eta islagailuak erabili. Ez jantzi arropa ilunik.
- Zirkulazio-kodea errespetatu. Ezkerretara edo eskuinetara biratu behar baduzu, alde aurretik adierazi maniobra. Kaskoa nahitaezkoa da herriz kanpoko bideetan; dena dela, ez da beharrezkoa aldapa gora luzeetan eta bero handi-handia egiten duenean.
- Zure erreian eskuinetara jotzeko aukera badago, kontuz ibili. Askotan, arrisku-egoerak sortzen dira.
- Biribilguneetan beste ibilgailu guztiek bezalaxe jokatu eta, lehen irteera hartu behar ez baduzu, erdiko erreietatik jarraitu.
- Ez erabili musika-entzungailurik.

Hirugarren ibilbidea Getxon egingo dugu oso-osorik. Abraren eskuinaldeko udalerrri horrek kokapen paregabea eta ikuspegi zoragarriak ditu. Horrekin batera, XX. mendearen hasierako eraikin eder ugari daude. Ibilbideak ez du inolako zailtasun orografikorik eta, beraz, egokia da jende guztiarentzat. Bi bizikleta-bidek segurtasuna ematen digute ibilbidearen zati handi batean.



## Ibilbidea

### Nola heldu

Ibilbidea Areetako metro-geltokian hasten da. Gogoan izan Metro Bilbaon dohainik eraman dezakegula bizikleta. Ezkerraldean bizi bazarete, Renferen aldirietako trenean Portugaleteraino joan, itsasadarra zeharkatu, eta hortxe hartu ibilbidea.

### 0 km: Areetako metroa-Bizkaia Zubia

Sarbideetako batean dagoen eskailera mekanikotik irtengo gara metrotik. Geltokiaren atzean Nobia Salcedo kalea hasten da. Zirkulazio urriko zeharkale eskua da. Horrelako kaleetan, komenigarria da galtzadaren erditik joatea, autoei gu aurrerazten ez uzteko. Txirrindularien hizkeran "autoetatik defendatzea" esaten zaio horri, eta gure eskuinaldean aparkatuta dauden autoen ondo-ondotik joatea baino askoz ere seguruagoa da. Eta ez ahaztu aholku hau: gutxienez, aparkatuta dagoen auto baten atea zabaltzean haren kontra ez jotzeko behar adinako tartea utzi behar dugu beti! Kale horretatik joango gara, itsasadarrerantz. Zirkulazio handiko Eduardo Coste kalea oinezkoen pasabidetik zeharkatu eta aurrera zuzen jarraituko dugu. Berehala, bidegorria aurkituko dugu. Hortik aurrera, bidegorritik joango gara, itsasadarra ezkerretara utzita, Bizkaia Zubiraino. Burdinazko erraldoi horretan egingo dugu lehen geldialdia, I. ibilbidean bezalaxe.

### 1 km: Bizkaia Zubia-Algortako Portu Zaharra

Bidegorritik joango gara Algortako Portu Zaharreraino. Eskuinaldean, hainbat etxe eta jauregitxoren arkitektura erakargarria ikusiko dugu, iragan mendearen hasierako Euskal Herriko burgesiaren gustuen erakusgarri. Estilo askotako eraikinak daude, Europako enragin nabarikoak, ezin ederragoak arkitektura *erregionalista* eta *neovasca* gogoko dituztenentzat.

Bizkaia Zubitik berrehun bat metrora, parketxo txukun bat aurkituko dugu, Evaristo Txurrukari eskainitako oroitarri batekin. Portua eta kaiak sortu zituenaren omenezko eskultura handi bat da. Gizakiak itsasoari lekua irabazteko eta beraren oldarra geldiarazteko egindako lan titanikoa irudikatzen du. Leku horretan, bidegorriak eskuinetara jotzen du eta Areetako hondartzaren ondotik doa. Itsas pasealekuko zuzen luzea egiten du. Abrako Itsas Elkartean instalazioen aldamentetik igaroko gara. Jose Luis Ugarte itsasgizon getxoztarraren omenezko bela-eskola dago bertan. Aurreraxeago, gure arreta merezi duten eraikin batzuk aurkituko ditugu, bata bestearen ondoan. Interesgarrienak Itsasbegi eta Kaialde jauregiak eta Cisco etxea dira. Areetako kaiko pasealekua amaitzen den lekutik hurbil, Zugatzarte etorbidearen beste aldean, Eguzkialde jauregi ezin dotoreagoa aurkituko dugu, arkitekturaren beste harribitxi bat. Dorre garaia, teilatu-hegal zabalak eta atari dotorea ikusirik, berehala ezagutuko dugu. Areetako kaia amaitzen den lekuan, bidegorriak laurogeita hamar gradu jiratzan du ezkerretara.

Bidegorria aldapa behera doa Arriluze eta Ibarra Markesaren pasealekutik. Pasealeku horrek badu beste izen bat, ezagunagoa: Arriluze kaia. Eskuinaldean beste hiru jauregi eder ikusiko ditugu. Hauek ere handiustez beterik ageri dira, gure presentziaz axolagabe, eta badirudi tinko begiratzen dutela Ezkerraldera. Izan ere, garai batean, hango



herri xehearen izerdia baliratu zuten Neguriko burgesiaren egoitza galant horiek eraikitzeko. Gaur egun, horrelako etxebizitzaren multzorik ikusgarrienetakoa da Estatu osoan. Autoentzako aparkaleku baten ondoan Lezama-Legizamon jauregia dago, beheaxeago Aitzgoyen baserri ezaguna, eta beraren ezker aldean Arriluze jauregia.

Bizikleta-bidexkak Naufragoen Etxeraino eramango gaitu. Ezkerretara utziko dugu. Badirudi dorreko faroak gora egin nahi duela, antzinako bere eginkizun prestua irauarazi nahirik, gaur egun ahaztuta geratu baita. Metro gutxira biribilgune txiki bat aurkituko dugu. Aurrera jarraituko dugu asfalto gorritik. Portu Zaharrera iritsi aurretik, turismo-bulegoaren aldamenetik igaroko gara. Azken metroak zirkulazio urriko errepide estu batetik egingo ditugu. Lehen

esan dugun bezala, komeni da gure erreia erditik joatea edo, lagunekin bagoaz, elkarren aldamenean ibiltzea, autoetatik defendatzeko eta beste aldetik ibilgailuren bat guganantz datorrenean gure atzekoei gu aurreratzen ez uzteko. Iritsi gara. Udalerriko lekuri ederrenetako batean gaude. Merezi du bizikletari giltzarrapoa jartzea eta portuko kale estuetan barrera osteratxo bat egitea. Arrantzale-familien garai bateko etxeak estu-estu daude elkarren ondoan, eta iraganeko tipismoa eta erromantizismoa kutsatzen dizkigute.

### 5 km: Portu Zaharra-Kirol portua

Etorri garen bidetik itzuliko gara, baina oraingoan naturaz gozatuko dugu. Inondik ere, Ibaizabalen itsasadarren estuarioa Bizkaiko itsasertzeko hezegunerik garrantzitsuenetakoa izan zen antzina. Padurek ehunka hektarea hartzen zituzten, eta bertako fauna eta flora askotarikoak eta ugariak ziren. Hala ere, beste hainbat lekutan bezalaxe, hiriarren eta industriaren presioak paisaia eraldatu eta lehengo paradisu naturala suntsitu zuen.

Bidegorria Ereaga hondartzaren aldamenetik doa. Ia 900 metro luze den hondartza horretan ibiliz gero, berberetxoak eta txirlak aurkituko ditugu hondar azpian ezkutaturik, eta muskuiluak, lapak eta itsas ezkurak arroken artean. Beharbada, karramarroren batek izuturik ihes egingo du gu hurbiltzean. Kaio hauskarek eta antxeta mokogorriek adi begiratuko digute, baina larregi hurbildu gabe, badaezpada ere. Bizkaiko kostaldeko hegazti ugariak dira. Hondartzako osteratxo amaitutakoan, biribilgunera itzuliko gara. Oraingoan, eskuinetara joko dugu eta kirol portuan sartuko gara. Hor ez dago bizikletentzako bide berezirik, baina, hirigintzako hizkeran esaten den moduan, zirkulazioa "motelduta" dago. Kai-muturreraino joan gaitzake, itsasontziak nola sartu eta irteten diren ikustera. Olatu-hormaren beste aldean leku paregabea da neguan txoritxo bi ikusteko, mimetismo handikoak diren arren: harri-iraularia eta txirri arrunta. Etengabe ibiltzen dira janari bila hormigoizko bloke erraldoien artean. Urdira amaigabearen azpiko bizitza ezagutzea nahiago dutenek Abra Aquarium bisita dezakete, itsas giro atlantikoak eta tropikalak ikusteko.

### 8 km: Kirol portua-Bolueko hezegunea

Kirol portutik irten, bidegorria berriro hartu, eta Arriluze kaitik igoko gara. Eskuinaldean La Bola deritzoten hondartza arrokatsua ikusiko dugu. Batzuetan, itsasgorak erabat estaltzen du eta, Zugatzarte pasealekua egin baino lehen, Areetako hondartzarekin bat eginik zegoen. Neguan leku ona da hegaztiak ikusteko. Itsas mikak eta kuliska txikiak urduri mugitzen dira marearteko zabalgunean. Bitartean, txilinporta lepabeltzak eta martin arruntak behin eta berriro murgiltzen dira uretan, janari bila.

Kirol portutik irten eta Arriluze kaitik igoko gara. Eskuinaldean La Bola deritzoten hondartza arrokatsua ikusiko dugu. Batzuetan, itsasgorak erabat estaltzen du. Neguan leku ona da hegaztiak ikusteko. Itsas mikak eta kuliska txikiak urduri mugitzen dira marearteko zabalgunean. Bitartean, txilinporta lepabeltzak eta martin arruntak behin eta berriro murgiltzen dira uretan, janari bila.





Bidegorritik jarraituko dugu Areetako kairaino. Gure ezkeraldeko lehen etxera iritsi baino lehen, komun publikoak ikusiko ditugu eta, haien ondoan, Zugatzarte etorbidea zeharkatzeko lurpeko pasabidea. Lurpeko pasabidetik irteteen, gure ezkerretara Cervantes kalea hasten da. Kale horretatik joango gara, amaieraraino. Han, ezkerretara jo behar dugu, baina debekatuta dago. Beraz, bizikletatik jaitsi eta metro batzuk egingo ditugu espaloitiki. Bizikletaren abantailak! Berehala, semaforo bat ikusiko dugu, Avanzada errepidea zeharkatzeko. Zeharkatu bezain laster, Zubiondo kalea hartuko dugu. Kalearen amaieran, eta Makaleta etorbidea zeharkatutakoan (kontuz ibili, bidegurutze arriskutsua da!), bizikleta-errei bat aurkituko dugu eta hortik joango gara, ezkerretarantz goazela, zurzuriak eta sasiakaziak izango ditugu ezker-eskuin. BI-637 errepidearen azpitik pasatu,

eta Fadurako kiroldegira iritsiko gara. Leku horretan, bizikleta-bidexkak eskuinetara jotzen du eta Gobela erreka ñimiñoaren gainetik pasatzen da. Metro batzuk aurrerago, ezkerretara jiratu eta Berangorantz jarraitzen du. Hortxe, bidegorria utzi eta eskuinetara doan errepide txiki batetik jarraituko dugu. Getxoko ingurumenak dituen altxorretako batera eramango gaitu: Bolueko hezegunera. Errepidean aurrera egingo dugu, hezegunea inguratuz, uraren ertzean hazten diren haltzen eta sahatsen gerizpean. Noizean behin, gelditu egingo gara, eta lezken eta ezpata-belarren artean begiratuko dugu, arreta handiz, hegaztiak, dortokak eta anfibioak ikusteko. Adi begiratu gero, etxeko ahate kaltegarriak ez ezik, espezie askotako animaliak eta landareak ikus ditzakegu. Komeni da interpretazio-panelak irakurtzea, animalia eta landare horiek identifikatzen ikasteko. Segur aski, ikusten ditugunean, horrelako natur ingurune batek duen garrantziaren kontzientzia handiagoa hartuko dugu eta guztion artean babestu behar dugula ohartuko gara. Hezeguneeak planeta osoan arrisku larriko ekosistematzat hartuta daude. Munduko hezegune eta aintzira naturalen %60 desagertu egin dira, gehienak azken 40 urteotan! Hala ere, habitat hori funtsezkoa da mehatxatutako espezie askoren biziraupenerako, eta baita gizakiarentzat berarentzat ere, edateko uraren urritasunak arriskuan jartzen baitu beraren etorkizuna.

Hezegunearen ondoko bideak Uribe Kostako autobiarene azpitik eramango gaitu. Han, Larrañazubi errekatxoaren gainetik igaroko gara. Ibilbidea apur bat luzatu nahi dutenek, ezkerrean hasten den eta errekatxoaren ertzetik doan errepidea har dezakete. Landa-giroko ingurune bat bisitatuko dute, non nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak landatutako eukalipto-basoekin elkartzen diren.

## 12.5: Bolueko hezegunea-Aiboako metroa

Aurrera egingo dugu hezegunea inguratzen duen errepidetik. Hezegunea amaitu bezain laster, berriro ere pasatuko gara BI-637 errepidearen azpitik. Aurrera jarraituko dugu, Larrañazubi herri-ikastetxea eskuinetara utzita. Gobela ibaia zeharkatu eta Lexarreta kalera iritsiko gara. Kale horrek bidegorrira eramango gaitu berriro. Eskuinetara joango gara. Makaleta etorbidea zeharkatzea ahalbidetzen digun oinezkoentzako lehen pasabidera iristean, bidegorria utzi eta Udaberri kaletik igoko gara, metrorantz. Aldapa labur bat igo eta gero, kalearen amaierara iritsiko gara. Eskuinetara igotzen jarraituko dugu. Aldapa beheara handiko zati bat eginda, ezkerretara doan oinezkoentzako kale txiki bat aurkituko dugu. Eskailera batzuk igo, eta Aiboako metro-geltokian izango gara.



## Leku interesgarriak

**Bizkaia Zubia** munduko lehen zubi-transbordadorea izan zen. Jendeak Zubi Esekia esaten dio. Alberto Palacio ingeniariak obra horren ideia patentatu zuen 1888an. Bost urte geroago, zubia eraikitzen amaitu zuten. Eiffel dorrearen estetika gogorarazten duen burdinazko erraldoi horren ospeak eskola sortu zuen Europan eta Amerikan. Hala ere, gaur egun Portugaletekoaren antzeko beste zubi bat bakarrik geratzen da zutik, Frantziako Rochefort hirian. Burdinaren

arkitekturaren eredu ederi Bizkaiko desarrollismoaren garaia den lekuko dugu. Gaur egun, XIX. mendearen amaierako eraikuntza-estiloaren eta ingeniariaren azarna paregabea eta erakusgarri onena da.

Inondik ere, Bizkaia Zubiaren egilearen ondok, Abrako ingeniari ospetsuena Evaristo Txurruka da. Berak eraldatu zituen kanpoko portua eta itsasadarraren sarrera. Izan ere, iragan mendearen hasieran, itsasadarraren hasierako hareazko barra arrisku handia zen itsasontzientzat. **Txurrukaren orotarriak** gizakiaren eta itsasoaren arteko borroka irudikatzen du. M.G. Salazarrek eraiki zuen, 1939an.

Beste arkitekto eta ingeniari askok ere utzi dute beren estiloaren azarna Getxon. Europako eraikuntzen eragin nabaria duten etxe eta jauregitxo ugari edertasun arkitektonikoak XX. mendearen hasierako Euskal Herriko burgesiaren gustuak gogorarazten dizkigute. Hona hemen gure ibilbidean ikusi ditugun erakinek ospetsuenak:

- **Itsasbegi jauregia** (Zugatzarte, 27). Rafael Garamendik proiektatu zuen, 1927an. Euskal Herriko jauregi-arkitekturaren eta ingeles kutsuko arkitekturaren sintesia da.
- **Kaialde jauregia** (Zugatzarte, 51). Irlandar jatorriko Manuel Maria Smith bilbotar arkitektoaren lana da. Harlanduzko eraikin ederra, 1925ekoa.
- **Cisco etxea** (Zugatzarte, 61). Europa iparraldekoen tankerako jauregitxo da, Manuel Maria Smithen 1911n egina. Garai batean, gehienbat sutontzietarako erabiltzen zen landare-ikatz xehea saltzen zuten bertan. Gaztelaniaz, herritarrek "cisco" esaten zioten ikatz mota horri (euskaraz "iduria" esaten zaio), eta izen hori jarri zioten etxeari ere.
- **Eguzkialde jauregia** edo Barbier etxea (Avanzada, 1). Leonardo Rucabadak diseinatu zuen, 1918an, eta Euskal Herriko goi-burgesiari hautatu zuen arkitekturaren eredu bikaina da. Estilo horrek *erregionalista* edo *neovasco* du izena, eta arkitektura autoktonoa aldeztu zuen, beste arte-mugimendu batzuen inbasioen aurka.
- **Lezama-Legizamon jauregia** (Atxekolandeta, 1). Jauretxe bikaina, oso handia eta eder-ederra. Erdiko dorre dotorea Salamancako Monterrey jauregian inspiratuta dago. Inondik ere, Bizkaiko goi-burgesiaren bizitegi-arkitekturaren adierazgarri onena da. Jatorrizko proiektua J.M. Basterrak egin zuen, 1902an, baina aldaketa eta berrikuntza ugari izan ditu.
- **Aitzgoyen baserria** (Atxekolandeta, 13). Manuel Maria Smithen lanik zaharrenetakoa da. 1910ean egin zuten, eta euskal baserriari inspiratutako erregionalismoaren erakusgarri onenetakoa da. Landu gabeko harriz eginda dago.
- **Arriluze jauregia** (Atxekolandeta, 15). Jose Luis Oriolek diseinatu zuen, eta eraikitze-lanak 1913an amaitu ziren. Erdi Aroko itxura du, eta Britainia Handiko *Ana Erregina* eta *Viktoriar* estiloen elementuak.
- **Naufraگوen Etxea** (Arriluze kaia, z/g). Ignacio Smith arkitektoaren obra da, 1920koa. Bi solairuko baserri handi baten antza du, baina, inolako zalantzarik gabe, ezaugarri deigarriena sekzio zirkularreko faroa da.

Udalerriko alderdirik aberatsenetako eta burguestuetako batetik alderdi herrikoiki eta tipismo handiko batera pasatzean aldaketa nabaria da. **Algortako Portu Zaharraz** ari gara. Kaleak estuak, aldapatsuak eta harriztatuak dira, autorik gabek eta arrantzale-familien etxe zaharren zimenduen euskarri. Kale horietan barrena goazela, denboran atzera egingo dugu, presarik, zaratarik eta kutsadurarik gabeko garai batera. Portua ia naturala da, eskualdeko arrantza-jarduera tradizionalaren azterna.





Getxon naturaz gozatzeko beste leku batzuk ere baditugu. Agian, lekurik bisitatuena **itsasbatzerra** da. Uraren ertzetik egingo dugun txangoan, Bizkaiko itsaso beti urduariaren besarkada eternala sentituko dugu, udako haizetxo leunaren laztanarekin batera edo neguan olatuen gainetik ibiltzen diren haize-laster gogorrek astinduta. Haize-laster horiek baliatuz, hegazti ugari iristen dira bertara, hotzetik ihesi, babes eta janari bila.

Getxoko naturaren beste harribitxi bat **Bolueko hezegunea** da. Basa faunaren mundu zoragarria ikertzen dutenek diotenez, ingurune batean hegazti jakin batzuk egotea ekosistemaren osasunaren adierazlea da. Irizpide horren arabera, Bolueko hezeguneko bizi-baldintzak ezin hobekak dira. Izan ere, uroilanda pikartak bertan ematen ditu udak, Afrika tropikaleko berotik ihesi. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan dago. Zozoaren tamainakoa da. Bularraldea grisa du, pikartadura zuriekin, eta hortik hartu du izena. Nolanahi ere, bere ohitura ilunabartarrak eta bizilekua direla eta, ikusten zaila da. Zalantzarik gabe, hezeguneko hegaztiarik ikusterrazena etxeko ahatearen arbasoa da: basahatea. Neguan, arrek Bizkaiko anatiendoen lumajerik ikusgarrienetakoa erakusten dute. Buru berde metalizatua eta lepoko zerrenda zuri estua ikusirik, ez dago beste ezekin hegaztiarekin nahasterik. Gainera, bizkarraren atzeko aldean bi luma kizkur txiki-txiki dituen ahate bakarra da. Ea ikusten duzun. Udaberriari, arren lumajea mimetikoagoa da, eta ahatekume jaiotze berriak urduri ibiltzen dira gurasoen atzetik, janari bila.

Urmael artifizial horrek bederatzitik hektarea ditu, eta Larrañazubi errekatxoaren eta Gobela ibaiaren ura hartzen du. Aipatu ditugunetz gain, beste hegazti, arrain, intsektu eta anfibio batzuk ere bizi dira bertan. Zingirako landaredian babesa eta janaria aurkitzen dituzte. Espezierik adierazgarrienak lezka, ezpata-belarra, ihia, lirio horia eta xipa-belarra dira. Ur gaineko landareak ere ikusiko ditugu, hala nola ur-dilista eta ur-galburua. Zurezko landareek ibaiertzeko baso interesgarria eratzen dute. Haltzak, sahasak eta lizarrak dira zuhaitzik ugariena. Sinesgaitza den arren, gaur egun natur edertasun hori guztia gordetzen duen lekua zabortege gisa erabili zuten 1992ra arte.



### Bazenekien...?

Floridako galapagoa gure ibai eta aintziretako espezie inbaditzailearik arriskutsuenetakoa da. Galapago belarrigorria ere esaten zaio, bi orban gorri dituelako. Ipar Amerika du jatorri, eta izugarri saldu da gure lurraldean. Etxean maskota horiek edukitzeaz aspertu diren pertsona arduragabe askok askatu egin dituzte, eta ingurumen-arazo larria sortu dute horrela. Dortoka horiek lekua kentzen diete gure galapago autoktonoei –galzoria daude-, eta aldaketa handiak eragiten dituzte ekosistema urtarretan. Azken urteotan, Bolueko hezegunean lan handia egiten ari da izurri hori geldiarazteko eta gure fauna autoktonoaren garapen normala bermatzeko. Etxeko ahateek ere horrelako arazoak sortzen dituzte.



## Informazio interesgarria

### Getxo

Udaletxea: 94-489.02.00  
Turismo-bulegoa: 94-491.08.00  
[www.getxo.net](http://www.getxo.net)

### Abra Aquarium

Tel.: 94-491.46.61  
[www.abraaquarium.com](http://www.abraaquarium.com)



### Larraldiak 112

#### Bizkaiko Foru Aldundia

Herri Lan Saila  
Tel.: 94-406.70.00  
[www.bizkaia.net/herri\\_lanak/Bizikletak/eu\\_index.html](http://www.bizkaia.net/herri_lanak/Bizikletak/eu_index.html)



### ELKARTEAK

- **Biziz Bizi.** Hiri Txirrindularien elkarteak  
Tel.: 94-489.01.19  
[www.bizizbizi.org](http://www.bizizbizi.org)
- **ConBici.** Bizikletaren aldeko koordinakundea  
[www.conbici.org](http://www.conbici.org)
- **Bizkaiko Txirrindularitza Federazioa**  
Tel.: 94-441.50.49  
[www.febici.com](http://www.febici.com)
- **Euskadi Txirrindularitza Iraskundea (Gela pedagogikoa)**  
Tel.: 94-454.51.27  
[www.fundacioneuskadi.com](http://www.fundacioneuskadi.com)



### BIZIKLETAREKIN BIDAIATZEKO GARRAIO PUBLIKOAK

- **BizkaiBus** (maletategia daukaten autobusetan bakarrik, eta zorro batean sartuta)  
Tel.: 902-222.265  
[www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)
- **Renferen** aldiriko trenak  
Tel.: 902-240.202  
<http://horarios.renfe.es>
- **Bizkaiko Garraio Partzuergoa**  
Tel.: 94-476.61.50  
[www.contrabi.com](http://www.contrabi.com)
- **Erandio-Barakaldo txalupa**  
Tel.: 94-467.00.35
- **Portugalete-Areeta txalupa**  
Tel.: 94-496.47.03
- **EuskoTren, EuskoTran eta Larrainetako funikularra**  
Tel.: 902-543.210  
[www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)
- **FEVE**  
Tel.: 94-425.06.15  
[www.feve.es](http://www.feve.es)
- **Artxandako funikularra**  
Tel.: 94-445.49.66  
[www.funicularartxanda.com](http://www.funicularartxanda.com)
- **Metro Bilbao**  
Tel.: 94-425.40.25  
[www.metrobilbao.net](http://www.metrobilbao.net)
- **Bizkaiko Zubia**  
Tel.: 94-480.10.12  
[www.puente-colgante.com](http://www.puente-colgante.com)



# Areeta

